

# **IZKUNTZAREN BATASUNA ETA BIZITASUNAZ**

**J. A. Irigaray**

## Aita zenaren omenez

*Larrekok erein azia  
nasaiki zen loratu zugan  
eta bizitza guztian zure oberena  
euskararen alde duzu eman;  
nigan ere  
gure mintzaira gaixotuarenganako amodioa  
zenuen txertatu  
eta erotik maite mindurik  
bititzan barna noa penetan,  
halere  
zordun nauzu, bihotzez esker on  
euskararik gabe ere, ai!  
ez bait ninteke izan.*

Euskarak gero eta ttipiago ditu eremuak, gero eta janago saihetsak, ahulago oinarriak; aspaldidanik itsasirik dakarren gaitza. Egoera hunen funtsezko arrazoin eta zioak ez dira euskara baitan bilatu behar, arazi; auzi huntan izkuntzaren sozietatezko baldintzak dira konda, ez izkuntzarekikoak.

Menperatu eta kenka larrian —hiltzeaz?— dagoen gizartearen arabera, euskara normalizatu gabeko izkuntza da, zeharo ‘substituitua’ izateko zorian dagoena; hots, azpiratu herrietan gertatzen ohi den egoera. Aje eta traba nagusiak, zailtasun eta ezintasunak hortik heldu zaizkio.

Alabainan, iduri luke euskararen arazo nagusia baturik ez egotea dela, haren normalizazioaren erdiesteko zailtasunak baturik ez egotetik heldu direla: eta, naski, hunek baduke bere garrantzi xumea, bainan eritasuna ez datorkio hortik, eritasuna sozietate eta politikazko baldintzetan da errotzen eta mamitzen. Hortik batasuna, bizitasuna eta normalizazioa izkuntzaren dependentzia egoeratik ezin bereix daitezkeen auziak izatea.

Sendabidea ere, beraz, —batasuna hortarakoxe dateke— giza sail bizitan, ibilbide eta xede tinkotan oinarritu beharra dago; erran nahi baita, nazio-izkuntzaren maillako zutabe eta helburutan, berauen baldintzetan. Eta hori dena, egiazko aurrerapenak erdiestekotan, demokrazian baizik ez daiteke mami; bainan tokitan gaude!

Kanpotikako eraso eta atzak haunditzenago eta sakontzenago doazen ber, biziago nabarmentzen dira aspaldidaniko ezintasun eta alderdikeriak. Besteak beste, gehien bat ‘batua/euskalkiak’ arloan da borrokatzen, bertan indarrak bideratzen eta xahutzen; hainbat non eztabaidatzen diren abantxu korapillo bakarrak izkuntzarekiko arazoak bait dira. ‘Euskara/erdarak’ kontradizione nagusia eta bere baldintzak, aldiz, bigarren maillan gelditzen dira, erdi izkutatuturik, besterenaturik. Eta batasunaren auzia bere egoera oso eta nagusian kokatzen ez bada inahalak zehar eta barna-bideetan dira tratatzen eta galtzen, ohargabeen bada ere menperakuntzaren laguntzaile bihurtzen; hura gabe batasunaren ariketak ahuntzaren gauerdiko ametsak dira bilakatzen.

Eta izkuntzarena gizartearen araberako auzia da.

Batean nola bestean, beti ere, aiseago da —posibleago, naski— etxeke borrokari ematea, kupidarik gabe, etsai nagusien aurka jazartzea baino; aspaldiko leloa, alaintso! Gaitasunik ezaren froga, besterenatze eta konzientzia ahularen seinale.

Bainan hau dena, ai! teleka zaharra da; zaharregia, aments, deus onik iguriki ahal izateko. Zeren, zinez gauza den herriak ez lukeia gaugerero egoeraz jabetuagorik ibili behar?